

Ordizian, 2016ko apirilaren 28an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, OHIKO DEIALDIAN, honakoak bertaratu zirelarik

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA:

José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako EHBildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako EHBildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako EHBildu
Izaro Intsausti Zinkunegi	Ordiziako EHBildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako EHBildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M <sup>a</sup> . Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak.

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

KONTUHARTZAILEA:

José Luis Aranburu Otegi

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1- 2016ko martxoaren 17an egindako osoko bilkurako akta onartzea.
- 2.-Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzei buruzko proposamena (DBL)
- 3.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.
- 4.- 2016 urteko ekitaldiko aurrekontua.
- 5.- 2016 ekitaldiko Plantilla Organikoa.
- 6.- 2016 urterako Lanpostuen Zerrenda.
- 7.-2015eko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.
- 8.- Lehen hiruhilekoan Kontuhartzaileak aurkeztutako ingera-txostenaren berri ematea.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 21.45

Lehendakari jaunak hasiera eman dio bilerari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.-2016ko martxoaren 17ko ohiko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2016ko martxoaren 17an ohiko deialdian egindako bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak:13 (EAJ/PNV 5,EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Socialisas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak akta onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak bigarren puntuaren berri eman du.

2.- Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzari (DBL) buruz Ordiziako EH-Bilduk aurkeztutako Proposamena.

Proposamena

JUSTIFIKAZIOA

2011bukaeran, Eusko Jaurlaritzak gure Gizarte Zerbitzuen prestaziorik garrantzitsuenetako bat den Diru sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE, RGI erdaraz) kobratu ahal izateko eskatzen den erroldatze denbora igotzea erabaki zuen; zehazki, urtebete eskatetik hiru urte eskatzera pasatu zen.

Horrek ekarri zuen, automatikoki, pertsona asko gure babes sistematik kanpo geratu zirela.

Murrizketa social horri aurre egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2012ko uztailen, Diru sarrerak Bermatzeko Laguntza (DBL, AGI erdaraz) sortu zuen, non prestazioa jasotzeko eskatzen den erroldatze denbora urtebetekoa den; hain zuzen ere, Patxi Lopezen gobernuak murrizketa egin aurretik,, DBE kobratzeko, urteetan eskatu izan den erroldatze denbora.

Beste modu batean esateko, DBE urteetan izan duen erroldatze denborara itzuliko balitz, DBL berez desagertu egino litzateke, lehen zeukan estaldura soziala berreskuratuko lukeelako. Murrizketa murriztuko litzateke.

DBL izeneko prestazioak izaera unibertsala dauka, hau da, baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei zuzenduta dago, berdin da nongoak diren, DBErekin beti gertatu izan den bezalaxe.

Gogoratu behar da DBLa Gipuzkoak bizi diren 1.422 familia unitatek jasotzen dutela eta familia horietan 700ume daudela, legez babestu beharrekoak.

Foru Gobernu berriak hasieratik jarri nahi izan du zalantzan DBLa eta horretarako argudio xenofoboak erabili izan ditu, erakartze efektua ("efecto llamada" delakoa) aipatuaz, badakienean onuradun kopurua egonkortu egin dela. Foru Aldundia Marotoren bidetik abiatu da murrizketa sozialak egiten jarraitzeko eta bere jarduera justifikatzeko.

Hori dela eta, Ordiziako Udalak honako mozio hau onartzen du:

#### ESKAERA

1.- Ordiziako Udalak bere babesaren adierazten die, Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile guztiei, inolako salbuespenik gabe; eta gogoratu nahi du ongizate soziala herritar eskubidea dela.

Halaber, bere aitortza aiderazi nahi die Gizarte Zerbitzuen langile guztiei, beraiek baitira eskubide horren bermea.

2.- Ordiziako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Diru sarrerak Bermatzeko Laguntza (DBL-AGI) izeneko prestazioa erasotzen jarraitzeari utzi eta, bereziki, hori justifikatzeko argudio xenofoboak bere hizketarik desagertarazteko.

3.- Ordiziako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio DBL izeneko prestazioa bertan behera uzteko duen asmori uko egin diezaiola.

4.- Ordiziako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio planteatu diezaiola Eusko Jaurlaritzari Diru sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE-RGI) jaso ahal izateko eskatzen den erroldatzen denbora hiru urteetatik urtebeterra pasa dezala, hain zuzen ere, lehn zegoen bezala.

5.- Ordiziako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio mozio honen hirugarren puntuan jasotakoa lehenbailehen burutu dezala.

#### Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

## Maiza andrea

Esan du Maroto jaunak laguntza horien xedea desitxuratzen zuten hainbat adierazpen egin zituela 2015ean.

Bere iritziz, Aldundiak hartu eta aditzera eman beharreko neurrien xedea laguntzak murriztea baino ez da. Horrek alarma soziala eta zalantza ugari sortzen ditu eztabaidan.

EH - BILDUK dio laguntzaren jatorria honetan datzala: diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko urte batez errolatuta egotetik hiru urtez egotera pasa zen; ondorioz, pertsona asko geratu ziren gizarte-babesik jaso gabe, eta horregatik sortu zen diru-sarrerak bermatzeko laguntza (DSBL). Laguntza horiek etorkinei bideratuta daudela, eta horiek baliabideak kentzen dizkigutela esaten da. Baina guztiz zilegi da beste herrialdeetako hiritarrak gure herrialdera etortzea aukera-berdintasunen bila, gure gazteak beste herrialdeetara joaten diren modu berean, aukera horien beraien bila, lan-bila. Hemendik doazen gazte horiei galdetu beharko genieke zer pentsatuko luketen herrialde haietan laguntza ukatuko baliote, eta mugak eta murrizketak ezarriko balizkiete.

Bere iritziz, etorkinek ere egiten dituzte beren ekarpenak; zergak ordainduz, eta ingurura egokitzen saiatuz eta herriko bizitzan parte hartuz.

Mozioak bost puntu ditu, eta Maiza andreak horiek azaldu ditu.

## Alkate jn.

Maiza andreari erantzun dio ados dagoela harekin bere esku-hartzean aipatu dituen alderdi askotan; ez, ordea, guztietan. Horregatik EH-BILDUren mozioaren aurka bozkatuko dute.

Legealdi honen hasieran, Foru Aldundiak DSBLri buruzko datuak bilduko zituen txosten bat lantzea proposatu zuen. Datu horiek aztertuta, honako ondorioak atera dira:

.- DSBL uharte bat da, Europako beste ezein herrialdetan existitzen ez den berezitasuna.

.- DSBLk artifizialki areagotu du Gipuzkoaranzko migrazio-fluxua, datu horietan ikus daitekeenez:

1.- Zenbait nazionalitatetan DSBL jasotzen duten pertsonen kopurua laukoiztu egiten dute.

2.- Gipuzkoa da krisialdiaren ondorioz etorkinen tasa murriztu ez duen probintzia bakarra. 2011-2015 aldian, etorkinen kopuruak % 6 egin du behera Euskal Autonomia Erkidegoan, eta Gipuzkoan % 4,5 egin du gora.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoan bizileku-baimenik ez duten pertsonen erdia baino gehiago Gipuzkoan bizi da.

4.- Zenbait udalerritan DSBLk gizarte-, hezkuntza-, osasun-premia gehiago sortzen ditu, babes-sistemak bete ez ditzakeenak, baliabideak mugatuak baitira.

Neurriak 1.400 pertsona eta 700 familia babesik gabe utziko lituzkeela esaten denean, Alkate jaunak esan du ez dutela inor utziko babesik gabe. Horrela, ezohiko neurriak proposatu dira Gipuzkoan bizi eta adingabeak dituzten familia etorkinen babesa bermatzeko.

Foru Aldundiari eskatu zaio hartu beharreko neurriak har ditzan Gipuzkoara iritsiko diren pertsonen modurik egokienean laguntzeko, arreta egiteko eta gizarteratzeko, arretarako eta gizarteratzeko euskal eredu baten barruan.

#### Maiza and.

Alkate jaunak azaldutako guztia Peña andreak prentsan ezagutarazi duela esan du. Harrigarria iruditzen zaio alkateak esatea Ordizian gertatzen direla irregulartasunik gehienak.

Nafarroako ez dago DSBL laguntzarik, eta gauza bera gertatzen da.

Aldundiaren txostena lantzeko DSBLarekin lan egiten duten teknikariek egindako galderetako batzuk harrigarriak dira beren edukiagatik; izan ere, galderetan beretan erantzuten ari baitira.

Galdera da, zergatik etortzen diren Ordiziara etorkinak.

Osasun-sistema desitxuratu egiten dutela esaten da.

Baina, etxeak hutsik dituzten jabeen galdetu beharko litzateke ea immigrazio horrek mesede egin ote dien alokairu-eskaera handiagoa izateko.

Erraza da laguntzak kentzea. Ikusi beharko dugu zertan den ELKAR EKIN programa, baina haren iritzi gizarte-egoera ahulean daudenek babesa behar dute.

#### Sukia and.

Bere iritzi, neurri eta erabaki politikoa da. Neurriak datu ekonomikoak besterik ez ditu ematen. Bere iritzi, balantzan kontuan hartu behar dira etorkizun hobeago baten bila datozen etorkinen eskubideak ere.

Bere iritzi, DSBLk errealitate bati erantzun dio. Laguntza hori bertan behera uzteari hipokrisia deritzo.

#### Dubreuil jn.

Mozioaren lehenengo puntuarekin ados dagoela esan du. Aipatu du, halaber, gaur egun onuradunak diren pertsonetatik bakar bat ere ez dela DSBLrik gabe, eta laguntza hori jasotzen jarraituko dutela haien egoera ekonomikoa eta lan-egoera aldatu bitartean, edo diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) jasotzeko moduan egon arte.

EH-BILDUK badaki babes-sistema DSBE baino askoz gehiago dela. Bere iritzi, aurkeztutako mozioak alarmismoa piztu dezake.

DSBE jasotzeko erroldatze-garaia urte batetik hiru urtera igo zenean, prestazio horretarako eskubidea ez zutenek gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL) jaso zitzaizkien. GLL eta DSBE, etxebizitzarako prestazioarekin batera, babes-sistemaren zati ziren, diru-sarrerak bermatzeko programa gisa. Sistema hori beste neurri batzuekin batera mantentzen da; besteak beste, "txirotasun energetikoari" aurre egiteko laguntzarekin (Euskadiko PSEk sustatua), eta etxebizitzaren lege berriak etxebizitzaren arloan zabaltzen dituen aukera berriekin (berau ere PSEk sustatua eta EH-BILDUK babestua).

Bere iritziz gauza askoren inguruan hausnartu, eztabaidatu eta erabaki behar dugu. Alabaina, gaur egungo babes-sistemak herritarren premiak asetzen ez baditu, eztabaida ireki beharko da Eusko Legebiltzarrean, hantxe onartzen edo aldatzen baitira legeak.

EH-BILDUK 2012an diru-sarrerak bermatzeko laguntza bat onartu zuen, eta hartan 6 hilabeteko erroldatze-epaia ezarri zuen. Gerora 12 hilabetera igo zuen; hortaz aipatu laguntza murriztu zuen. Zer argudio erabili zituzten murrizketa hartarako?

Mezu alarmista argi batean aipatzen dute 700 haur babesik gabe geratuko direla. Azpimarratu behar dugu, dio Dubreuil jaunak, haur horiek diru-sarrerak bermatzeko laguntza (DSBL) jasotzen jarraituko dutela, horiek ekonomia-egoera hobea den bitartean, edo diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) jasotzeko moduan egon bitartean. DSBL une honetan sisteman dauden pertsona guztientzat, eta 2015eko abenduaren 31 aurretik erroldatuta dauden eta haur txikiak dituzten familientzat mantenduko da. 2016ko abenduaren 31ra arteko epea mantenduko da eta eskaera berriak sartzeko, data horretan bukatuta egon beharko luke, udal-legearen arabera, gizarte-babeserako sistemaren analisia.

Horrez gain, DSBL berdintasun-printzipioa hautsi egiten du. Ez dute lagundu nahi euskaldunek eskubide desberdinak izaten, lurralde batean edo bestean bizitzeagatik.

Azkenik, DSBL laguntza guri ez dagokigun eskumena da. Hori kudeatu behar izateak ahalegin handia eskatzen die gizarte-zerbitzuetako langileei eta lan-karga horrek ez dakar berarekin bestelako laguntzarik eta babesik DSBL laguntzak jasotzen dituzten pertsonekin benetako gizarteratze-proiektuak sustatu ahal izateko. Lan-karga handiagoa, laguntzarik gabe. Bai ederra modua gizarte-langileen lana aitortzeko.

Aldundiak ELKAR - EKIN plana albait azkarren lantzea espero dute, gizarte-bazterketa pairatzen duten pertsonen arreta hobetze aldera, horretarako ikasketa-ikastaroetarako aukera izateko eta lan bat eskuratu ahal izateko laguntzak baliatuz.

Mozioaren aurka bozkatuko du.

#### Eguren jn.

Xede politikoa duen kontu politikoa dela esan du. Ados dago Aldundiarekin irregulartasunak gertatzen direla esaten duenean, baina hortik ezin ondoriozta daiteke laguntzak soilik etorkinentzat direnik, eta horretan oinarritu laguntza horiek kentzeko.

EAJren erabaki politikoa da.

PSOEren jarrerak harritu egiten du. 2011n, kexu zen DSBLrako dirurik nahikoa ez zegoela.

Ez daki beste hainbat talderekin (alargunak, erretiratuak...) berdin jokatu litzatekeen, eta ez kezkatzeko esango litzaikeen, beste laguntza batzuk emango litziekietelako.

Murrizketa hutsa da, eskubide-mugaketa bat.

Kanpokoez eta bertakoez hitz egiten dugu. 60ko hamarkadan Estatuko jende asko etorri ziren lanera, aukeren bila, eta orain gure familiakoak dira.

#### Alkate jn.

Esan du DSBLri buruzko inkesta bat egitea eta hori analizatzea erabaki politikoa izan dela, bai. Erabaki politikoa izan da, halaber, DSBL 2016ko uztailera arte mantentzea, eta DSBLko onuradunak egoera horretan jarraitzea horien egoera hobeagoa izan arte.

Ez du "iruzur" hitza aipatu, baina esan du, esan ere, Euskal Herrian eta, oro har, Estatuan, DSBL Gipuzkoak bakarrik edukitzeak dei-efektua sortzen duela.

Bere iritziz, babes-sistemak euskal eredu bat izan behar du Euskal Autonomia Erkidegoarentzat, orekatzen duen eta oreka hori hausten ez duen babes-sistema.

#### Dubreuil jn.

Eguren jaunari galdetu dio ea esan nahi izan ote duen neurria desagertuko dela Aldundiak iruzur egon dela pentsatzen duelako.

Adierazi du laguntza horiek ez dutela gizarteratzean lagundu, beste prozesu paralelo batzuk martxan jarri ez direlako.

Berrito diote ezinbestekoa dela eztabaida Eusko Legebiltzarrean egitea. Bere iritziz EUDELek ere eztabaida horretan parte hartu beharko luke.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (EH-Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2)

Kontrako botoak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



### 3.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Martxoari dagozkion Alkatetza Dekretuen berri eman du.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



### 4.- 2016 urteko ekitaldiko aurrekontua.

#### Proposamena

Osoko bilkurarako Gaietarako Batzordeak alkate jaunak idatzitako aurrekontu-proiektua aztertu zuen 2016ko apirilaren 20an egindako bilkuran, eta osoko bilkurara eramatea adostu zuen, bertan eztabaidatu eta onartzeko.

#### AKORDIO PROPOSAMENA

Alkate jaunak idatzitako 2016ko aurrekontu-proiektua onartzea. Proiektuak honako kapituluak ditu laburbilduta:

#### SARRERAK

KAPITULUA	IZENA	EURO
1	Zuzeneko zergak	2.441.000
2	Zeharkako zergak	135.000
3	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.816.221
4	Transferentzia arruntak	8.605.490
5	Ondare sarrerak	50.077
6	Inbertsio errealak besterentzea	225.000
7	Kapital transferentziak	0
8	Finantza aktiboen aldakuntzak	45.000
9	Finantza pasiboen aldakuntzak	438.859
	GUZTIRA	14.756.647

#### GASTUAK

KAPITULUA	IZENA	EURO
1	Langileen ordainsariak	4.890.341
2	Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea.	6.201.737
3	Interesak	104.270
4	Transferentzia arruntak	2.413.680
6	Inbertsio errealak	456.129
7	Kapital transferentziak	30.580
8	Finantza aktiboen aldakuntzak	45.000
9	Finantza pasiboen aldakuntzak	614.910
	GUZTIRA	14.756.647

Honako aurrekontu hauek bat egitearen ondorio direnak:



## UDALAREN BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-	2.441.000	Kap. 1.-	3.853.715
Kap. 2.-	135.000	Kap. 2.-	2.774.958
Kap. 3.-	1.034.360	Kap. 3.-	49.715
Kap. 4.-	7.150.425	Kap. 4.-	3.612.297
Kap. 5.-	23.360		
Kap. 6.-	0	Kap. 6.-	355.219
Kap. 7.-	0	Kap. 7.-	131.490
Kap. 8.-	45.000	Kap. 8.-	45.000
Kap. 9.-	438.859	Kap. 9.-	445.610
GUZTIRA	11.268.004	GUZTIRA	11.268.004

## "SAN JOSE EGOITZA" ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	744.141
Kap. 2.-		Kap. 2.-	1.971.419
Kap. 3.-	940.248	Kap. 3.-	
Kap. 4.-	1.775.312	Kap. 4.-	
Kap. 5.-			
Kap. 6.-		Kap. 6.-	
Kap. 7.-		Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	
GUZTIRA	2.715.560	GUZTIRA	2.715.560

## "HERRI ANTZOKIA" ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	100.605
Kap. 2.-		Kap. 2.-	94.425
Kap. 3.-	56.400	Kap. 3.-	50
Kap. 4.-	127.680	Kap. 4.-	1.000
Kap. 5.-	12.000		
Kap. 6.-		Kap. 6.-	15.000
Kap. 7.-	15.000	Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	
GUZTIRA	211.080	GUZTIRA	211.080

MAJORI KIROLDEGIA SM-ren AURREIKUSPEN BALANTZEA

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	191.880
Kap. 2.-		Kap. 2.-	1.330.935
Kap. 3.-	785.213	Kap. 3.-	3.500
Kap. 4.-	830.196	Kap. 4.-	78.506
Kap. 5.-	8.712		
Kap. 6.-		Kap. 6.-	85.910
Kap. 7.-	85.910	Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	19.300
GUZTIRA	1.710.031	GUZTIRA	1.710.031

ORDIZIA LANTZEN SA-ren AURREIKUSPEN BALANTZEA

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	
Kap. 2.-		Kap. 2.-	30.000
Kap. 3.-		Kap. 3.-	51.005
Kap. 4.-		Kap. 4.-	
Kap. 5.-	6.005		
Kap. 6.-	225.000	Kap. 6.-	
Kap. 7.-		Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	150.000
GUZTIRA	231.005	GUZTIRA	231.005

Ondoren idatzi den Aurrekontua Betearazteko Udal Araua onartzea:

*2016ko AURREKONTUA BETEARAZTEKO OINARRIAK*

1.- 2016ko urteko ekonomi ekitaldian, Ordiziako Udalak bere Aurrekontuaren hasierako kredituen guztizko zenbatekoaren gehienez ere % 1eko abalak eman ditzake. Erakunde autonomoek ezin izango dute hirugarrenen aurrean abalak eman, ezta inolako bermerik hitzartu ere.

2.- Gastuen Aurrekontuko honako kontusail hauek handitu daitezke bakoitzarentzat ezartzen den finantziazioaren arabera.

GASTUAK		SARRERAK	
Partida	Kontzeptua	Partida	Kontzeptua
227.07.931.00	Foru Aldundiak herri-zergak kudeatzeagatiko kontua	112.01, 112.02, 130.01 eta 130.02	Askotarikoak
227.09.931.00	Premiamenduzko dirubilketarako kontratua	392.01 eta 393.01	Askotarikoak
226.99.133.00	Ibilgailuak kentzea	310.05	Ibilgailuak

			kentzeagatiko sarrerak
212.01.133.00	Bideetako seinaleak mantentzea	399.01	Matxurak eragiten dituztenen sarrerak.

Alkatetzaren dekretu bidez onartuko da kreditua handitzeko espedientea.

3.- Programa-multzo beraren barruan egin beharreko kreditu-transferentziak Arlo bakoitzeko ardura duen Delegatuak eskatu beharko ditu, eta Alkate jaunaren dekretu bidez onartu beharko dira.

Kontusailak gainditzen badira, eta egoera horretan dagoen ordezkariak egin beharreko transferentziak egitea proposatzen ez badu, Ogasun Ordezkaritzak egokien irizten dituen kontusailak hartuko ditu.

Programa-multzo ezberdinen arteko kreditu-transferentziak Osoko Bilkurari dagozkio. Inbertsioetarako kredituak murriztea ekarriko duten kreditu transferentzien espedienteetarako, Osoko Bilkuraren erabakia beharko da. Gai horretan, Alkate jaunarentzat zehaztutako eskumen berberak izango dituzte Erakunde Autonomoetako buruek.

4.- Kontu-hartzaileak prestatuko du aurreko urteko kredituen ekarpenerako espedientearen zirriborroa, horretarako honako faseetan geratu diren gastuei erreparatuko die: abenduaren 31n Baimenduan (B) edo Xedatutakoan (X) zeudenak. Alkate jaunari dagokio espedientea onartzea.

5.- Alkateak kreditu gehigarrien espedienteak onar ditzake, baina beti ere, metatuz gero, diru-sarrera arrunten aurrekontuaren %5a gainditu gabe.

6.- "Langileentzako maileguak" 833.01.920.00 kontusaileko kredituak eskuratzeko, interesdunek eskaera egin beharko dute, eta proposatutako eta aurrekontuan jasotako gastua justifikatu beharko dute. Ogasun Ordezkaritzak ebatziko du mailegua ematea bidezkoa den ala ez; oniritzia jasoz gero, alkate jaunaren dekretuz betearaziko da.

7.- Aurrekontuan aurreikusitakoak baino diru-laguntza finalista handiagoak lortzen badira, kopuru berdineko gastu-kredituak gehitzea izango da dagozkien gastu-partidetan. Alkate jaunak baimenduko du gaitze hori.

8.- Honako hauen inguruko gastuak egiteko:

- Langileak kontratatzea
- Lanak kanpokoekin kontratatzea.
- Mantentze-lan hutsak ez diren obrak edo lanak udal-zerbitzuek beraiek egitea
- Material inbentagarria erostea.

Alkatetzaren dekretu bidezko alde aurretiko onarpena behar izango da, eta aurrez kontu-hartzailearen txostena eskatu beharko da. Alkatetzaren aldeko dekretua jasotzen ez den bitartean, erabat geldituko da gastu-espedientearen tramitazioa.

Baita ere, 500 eurotik gorako gastuak egin ahal izateko "gastu baimena" orria bete beharko da. Modu honetan Kontabilitatearen hobekuntza nabaria lortuko da.

9.- Bi (2) hilabetean behin kontu-hartzaileak aurrekontu-partiden egoeraren berri emango die ordezkarietzi; horiek behar diren neurriak hartu beharko dituzte onartutako kreditua ez gaintzeko. Erabilgarri dagoen kreditua behar adinako ez dela irizten bada, bai aparteko gastuak izan direlako, bai Aurrekontua egiterakoan ezagutzen ez ziren beste premia batzuk daudelako, dagokion Ordezkaritzak kreditu-gehiarri ematea proposatuko du; horretarako, dagokion finantziarioa proposatu beharko du, edo kreditu-soberakina eskatu beharko du, halakorik balego.

10.- Dietak.- Udalaren ordezkariak, Alkateak eta Zinegotziak, eta udal-langileak joan-etorriengatik sortzen zaizkien gastuak kobratzeko eskubidea izango dute, beti ere, joan-etorri horiek udalaren eskumenekoak diren gaiak kudeatzeko egiten direnean; horretarako, Korporazioak baimena emana behar du.

Gastu horien kopurua honako hau izango da:

Autonomia Erkidego barruko joan-etorria norberaren ibilgailuan, 0,29 euro/km. Gosariak: 6 euro. Bazkaria: 16 euro. Afaria: 16 euro.

Ostatu hartzea: gehienez pertsona/eguneko/ 100 euroko gastua duen hotela.

Ikastaroetara nahiz azoketara joanez gero, bazkari, afari eta ostatu hartzeko ere ezarritako mugak aplikatuko dira. Erakunde arteko harremanengatik aipatu horiek baino gastu handiak egin behar direnean soilik estaliko ditu horiek Udalak, aurrez gastuei dagozkien fakturak ekarrita.

11.- Kredituak likidatzerakoan, agiriak egiterakoan edo konpromisoak hartzerakoan Udaleko buru, funtzionario eta kideak ordainketa oker guztiak itzultzeko erantzukizuna izango dute, hartuta dituzten eginkizunen arabera. Edozein motako agintari eta funtzionarioek, iruzurratik, erruagatik edo arduragabekeria larriagatik lege-xedapenak hautsiz erabakiak hartu edo egintzak egiten badituzte, horien ondoriozko kalte eta galerak ordaintzera behartuta daude Korporazioari. Dena dela, gastuak eta ordainketak agintzen dituenak eta kontu-hartzaileak, aipatu gastu eta ordainketa horiek desegokiak direla idatziz ohartarazten ez badu, baimentzen dituzten behar adinako krediturik gabeko gastu guztien erantzule izango dira, baita aitortzen, kitatzen edo ordaintzen duten obligazio guztien erantzule ere.

12.- Salmentak.- Alkatezaren aginduz, ezertarako balio ez duten gauzen salmenta egingo da, aipatu gauzek 360.- euro baino gutxiago balio dutenean. Nolanahi ere, esan behar da Udalaren beste erabakirik behar ez duten salmentetarako oinarria dela hori.

13.- Alkateak ez du bere eskumenik inoren esku utzi, eta ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoak ditu bere esku.

14.- Kredituen lotespen juridikoaren mailak honako hauek izango dira:

Programa eta azalpena.

Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak  
Inbertsio errealak  
Finantza aktiboen aldakuntzak

Programa eta kapitulua

2. kapitulua ( elektrizitate, ur, gas eta erregai horniduren partidak izan ezik, hauek Aurrekontu osorako azpikontzeptu ekonomiko gisa azalduko dira).

Kapitulua

Langile gastuak

Finantza gastuetako 3. kapitulua eta Finantza Pasiboen aldakuntzetako 9. kapituluak uztartuta geratzen dira.

2. kapituluko kontusail askoren gastuak urte guztian zehar sortzen direla kontuan hartuta, eta, kredituen lotespen juridikoaren mailak zorrotz aplikatzearen ondorioz, aipatu kontusailtako kredituak agortu ez daitezen, kontu-hartzailetzaren aurrekontu-partidarekiko kontrola 2016ko azaro arte egingo da.

15.- Ordainketak. Ordainketak, oro har, banku-transferentzia bitartez egingo dira.

Ordainketak, faktura Udalaren kontu-hartzailetza departamentuan sartu eta 30 egun baino lehenago egingo dira.

Ordizian, 2016ko apirilaren 20an.

ALKATEAK

Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Legealdiko lehenengo aurrekontu honek jarduteko malgutasun txikia du, gastu finko kontsolidatua eta hainbat erakunderi (Majori, Sasieta...) egindako ekarpenak altuak direlako.

Helburua bere iritziz ona den zerbitzu-maila horri eustea da, eta aurkezten den proposamenak murrizketarik ez izateaz gain, hainbat arlo garrantzitsu sendotzen ditu (gizarte-zerbitzuak, kasu) kontusail errealistekin.

Jarduteko malgutasun eza horrek aurrezteko gaitasun eza dakar berarekin.

Aurrekontuak aurrekontu-egonkortasuneko printzipioa betetzen du, baita finantza-jasangarritasuneko helburua ere, % 80tik beherakoa izan behar duen zor bizia sarreraren % 32,42koa baita.

Finkatutako aurrekontua 14.756.747 € da, eta horretatik zehazki 11.268.004 € udalari dagozkie.

Ezinbestekoa dugu gastua kontrolatzea eta gastuaren euspena. Horrez gain, kanpoko finantzaketa bilatu beharrean gaude.

Erronkarik handiena alderdien arteko lankidetzaz zintzoa da, oinarritzko printzipio gisa errespetua hartuta. Hoberena litzateke Ordiziarentzat.

Xedea Ordizia hobetuko duen epe luzerako plangintza egitea da, eta hori 4 puntutan oinarritzen da:

1.- Plangintza orokorrari bultzada eman, talde guztien lankidetzarekin, etorkizuneko Ordiziaren plangintza eginez eta definituz.

2.- Ekonomia sustatzeko ekintza guztiak koordinatuko dituen ekonomia-plangintza bat garatu: azoka bultzatu, merkataritza- eta turismo-sektorea garatu, enplegu-faktoiei buruzko EKIMENA proiektua, lankidetzan prestatu Goierri Eskolarekin, adi betarako hainbat kontratazio eta bestelako neurriez gain.

3.- Gizarte-zerbitzuen plan estrategikoa. Gure zerbitzu-zorroa definitu behar dugu, gure errealitatea ezagutu eta alderdi politikoekin eta gizarte-eragileekin udalaren etorkizuneko gizarte-zerbitzuez eztabaidatu.

4.- Azkenik, Ordiziako gizarte- eta kultura-ehunarekin lankidetzan jardun behar dugu eta horri laguntza eman, eta herritarren parte-hartzea sustatu, eta udalerrri dinamiko bat eraiki.

Aurrekontua lantzen udaleko teknikariek, aholku-kontseiluek, herritarrek eta alderdi politikoek parte hartu dutela azpimarratu du. Halaber, herritarren 90 proposamen hartu dira aintzat. Horiei guztiei beren esku-hartzea eskertu die.

### Eguren jn.

Harrিতa daude aurrekontua onartzen horrenbeste berandutu izanagatik. Udal bakarretako bat edo bakarra izango gara maiatzera aurrekonturik gabe iristen.

Baina batez ere, osoko bilkurara onartzeko ekarri den aurrekontu-agiria aurrekontu-zirriborroa baino ez dela iritzi dio. Azken bi hilabeteetan ogasun-zinegotzi Iturriotz jauna dokumentua lantzen saiatu da, eta ahalegina eskertzen dute. Alabaina, haien iritzi hori baino ez da, zirriborroa.

Duela hilabete batzuk zituzten zalantzak, gaur gaurkoz ere horretan jarraitzen dute.

Eguren jaunaren iritzi, aurreikuspenik eta ordenarik gabe landutako aurrekontua da, eta bere buruari galdetzen dio ea gobernu honek ba ote dakien zer nahi duen.

Erkidego batean, partaidetza handiago duen bizilagunak eskubide eta betebeharrak gehiago ditu; baina, erkidegoko presidenteari dagokio proposamenak lantzea, motibatzea eta arrazoiak ematea.

Esan du ez dagoela "guztion artean" esaldiaren pean adosturik eta erabakitzerik bestelako proposamenak aintzat hartu gabe.

Bere esanetan, "inbertsioetarako proposamena" izeneko agiria osoko bilkura hau hasi aurretik banatu zaiela, eta aldaketa nabarmenekin.

Esan du ez duela deus inbertsio-planaren aurka, baina adostu beharra dago, haren iritzi.

EH-BILDUK hilabeteak daramatza aurrekontuaren garrantzia azpimarratzen eta gogorarazten. 2015eko urrirako, ordurako, prozesu parte-hartzaile bat martxan jartzea eskatu zuten; 2016ko otsailera arte, ordea, ez zen postontzietan banatu.

Abenduaren 2an, aurrekontu parte-hartzaileetan adostutako inbertsioak eskatu ziren sailez sail; eskaera, ordea, ez zen kontuan hartu.

Ez daki noiz onartu diren Herri Antzokiaren eta San Jose Egoitzaren aurrekontuak.

Pasa den astean onartu zen Ordizia Lantzen SAren aurrekontua.

Gobernu-taldeak mozioak eta proposamenak onartu ditu, baina ez sira aurrekontuetan jaso.

Zenbait alderdi politikorekiko errespetu falta erabatekoa da. Aurrekontuaren % 95 2015ekoaren berdin-berdina da.

Gizarte-alkairuko programa oraindik ez dago martxan, eta aurrekontu-partida murriztu da.

Berrero ere dio, Iturriotz jaunak egindako lana baloratzen dutela, baina nota jarri beharko balitzaio, EZ AURKEZTUA litzateke.

#### Intsausti and.

Osoko zuzenketa aurkeztu du. Osoko zuzenketaren kopia bana eman die udalbatzako kideei. Aurkeztutako osoko zuzenketaren alderdiak azaldu ditu.

Esan du hainbat zalantza eta kontsulta aurkeztu dituela, eta oraindik ez zaizkiola argitu.

#### Texto de la ENMIENDA

#### AZTERKETA OROKORRA

		Oharrak
Sarrerak	10.806.835,00	
Gastuak	10.771.399,00	
Marjina	35.436,00	Azken urteetako bilakaera begiratu
Amortizazioa	445.610,00	Mailegu bidez eskatu litekeena
Inbertsioetarako kopurua	481.046,00	
2015eko aurrekontutik eratorritakoak	840.035,08	
· Aurreko urtetik ejekutatu gabeko dirua	652.035,08	
· Partida extrapresupuestarioa	173.000,00	77,000€ langileen elkarkidetza ordaintzeko konpromisoa hartuta eta gainerako

		100.000€ adjudikatu gabe
- Partida txikiak (comercio...)	15.000,00	
INBERTSIOETARAKO TOTALA	1.321.081,08	
- Langileei elkarkidetzak ordainketa	100.000	
INBERTSIOETARAKO AZKEN KOPURUA	1.221.081,08	

### GASTUEN AZTERKETA (IGOERAK)

Partida	Kontzeptua	Kop.	Aldakt	Oharrak
227.07.151.00	Hirigintzako azterketa teknikoak	25.000	0	AZALPENAK
210.01.153.40	Bide publikoen mantenua	36.170	0	AZALPENAK
480.01.152.20	Birgaitzerako diru laguntzak	30.000	10.000	Zaharkituta geratzen ari diren etxebizitza hutsak alokairu sozialaren barneko programan txertatzeko baldintzarekin
480.02.152.20	Irisgarritasunerako diru laguntzak	30.000	20.000	Zaharkituta geratzen ari diren etxebizitza hutsak alokairu sozialaren barneko programan txertatzeko baldintzarekin
480.01.152.30	Alokairu sozialerako laguntzak	25.780	5.780	Lehenengo urteko kopuru bera mantendu. IBiko errekararekin biltzen den dirua programa honetara bideratu.
480.03.152.30	Alokairu sozialerako birgaitzeko diru laguntzak	17.225	17.225	Lehenengo urteko kopuru bera mantendu. IBiko errekararekin biltzen den dirua programa honetara bideratu.
226.07.231.00	Drogom laguntzak eta Ordizia Lagunkoia		0	AZALPENAK
480.05.231.00	Udal zergetarako laguntzak	10.000	5.000	Krisi garaian partida hau jaistea ez da bidezkoa
480.02.231.30	Larrialdietarako laguntzak	120.000	0	AZALPENAK
431.01.231.90	San Jose Egoitza	345.000	0	AZALPENAK
470.01.241.00	Enplegu sustapena	120.000	0	AZALPENAK
481.01.323.10	Haur eskola	388.104	0	AZALPENAK
431.01.333.20	Herri Antzokira laguntza	118.000	3000	PGBan emandako datua.
471.01.491.00	Gitbrekin hitzarmena			AZALPENAK
	Gure esku dagori laguntza		3000	Diru laguntza aurreikusi
	Stop kaleratzeak	6000	6000	Urriko Plenoan hartutako konpromisoa bete
	Bizikidetzarako programa	6000	6000	O.O.koen proposamena txertatu
	TOTALA		76.005	



### GASTUEN AZTERKETA (JAITSIERAK)

Partida	Kontzeptua	Kopurua	Aldaketa	Oharrak
226.98.338.10	Jaietako hainbat gastu	20.000	4.000	Lehenengo urteko kopurua mantendu
226.99.338.10	Jaiak	89.000	4.000	Lehenengo urteko kopurua mantendu
226.99.338.20	Euskal jaietako asteazkena	40.000	6.000	Lehenengo urteko kopurua mantendu
471.01.430.00	Enpresetara laguntzak	66.600	26.400	Azalpenetako aurreikuspenaren kopurua da
226.92.431.10	Feria mediebala	8.500	5.710	Gutxiagorekin egin zen lehenengo urtean
226.92.431.20	Azokaren animazioa	10.000	5.000	Lehenengo urteko kopurua mantendu
226.03.432.00	Sustapen turistikoa	3.000	3.000	Zer dago aurreikusita? Azalpenetan ez da ageri. Delikatuzek egiten du, ezta?
226.06.432.00	Delikatuzeko ekintzak	3.000	3.000	Aurreko urtean urteurrena zelako berezia. 2014an 2560€ ko laguntza ematen zitzaien
227.07.912.00	Azterketa teknikoak	11.000	11.000	Ez dago ezer aurreikusita
226.06.924.00	Partaidetza prozesuak	6500	6500	Partaidetza prozesurik aurreikusten al dute?
	Publizitatea	3000	3000	Erdira jaitsi
		<b>TOTALA</b>	<b>77.610</b>	

INBERTSIOAK (2016 ekitaldiko diruaekin)	481.046,00
Herri Antzokia	15.000
Majori	85.000
Goierriko Herrien Ekintza	30.000
Urdaneta ikastetxea	10.000
Liburuen erosketak	15.000
Informatika	10.000
Asfaltados (urteroko partxeoa egiteko)	20.000
Espaloien konponketa	40.000
Konpostagailuak	12.000
Energia ikerketa	10.000
Zoru labaingarrientzat tratamendua	20.000
Obra txikiak	24.000
Ikasgela (1)	40.000
Oianguko baserriaren garapena (2)	150.000
<b>TOTALA</b>	<b>481.000</b>

INBERTSIOAK (2015etik inkorporatu daitekeen diruarekin)	840.035,08
Estalpea	67.578
Buztuntzako pasealekua	288.000
Baratzak	20.000
Barrenako jostailuen berritzea	28.893
Lokalaren erosketa (3)	128.000
Seinaletika hobetzea	25.000
Hileta zibiletarako lokala	30.000
Tresneria	10.000
Ibilgailu baten erosketa	15.000
Irisgarritasuna bermatzeko ekintzak	76.000
Plan orokorra	52.000
Espaloi konponketa eta asfaltados	100.000
TOTALA	840.471

- (1) Ikasleek egindako eskaerari erantzuna
- (2) 2. solairu eta parking-aren konponketa
- (3) Jose Aranako lokala erostea (bi partetan ordaintzeko aukera)

#### Kontuhartzaile jn.

Kontsulta moduan egin zaizkion zenbait kontu argitu ditu.

Plan Orokorra idazten jarraitzeko beharrezkoa den kopuruari dagokionez, 2010eko 542.01.151.00 partidaren dagoen 30.219, 80.-etik soilik 23.450.-€ falta direla azaldu du eta 6.769,90.-€ko soberakina sortzen dela, aurtengo partidara transferitu daitezkeenak. 2016ko Aurrekontuetan aurreikusitako 30.000 €tik pilar Amenabar arkitektoaren idatzian azaltzen diren 36.300-€ osatuko lirateke.

Ingurune Zarataren Azterketarako beharrezkoak diren 17.500.-€ soilik geratuko lirateke Aurrekontutik kanpo, baina kreditu aldaketa baten bidez finantza daiteke Azterketa hori.

#### Iturriotz jn.

Esan du gobernu-taldearen asmoa zela aurrekontuak martxoko osoko bilkurara eramatea zela, baina EH-BILDUk eskatu zuela hilabeteko epea aurrekontuak aztertzeko.

#### Eguren jn.

Esan du aurrekontua oso modu eskasean iritsi dela, eta gaur osaturik ez badago, pentsatu ere ez du egin nahi nola zegokeen martxoan.

Ez dira haien proposamenak aintzat hartu, eta gainera gezurra esan diete. Ongi aski daki hondakinak biltzeko sistema aldatzearen kostuaren zati bat udalaren kargura izango dela, eta ez dagoela horretarako aurrekontu-partidarik.

Esan du gezurra esatea haiekiko begirunea galtzea dela.

#### Sukia and.

Berak egindako hainbat ekarpen aintzat hartu dira. Badaki, jakin ere, aurrekontua oso dokumentu garrantzitsua dela, eta 3 hilabete eskas suertatu zaizkiela, bai, behintzat, berari, lehenengo aldia izanik aurrekontuak lantzen. Horregatik, heldu den urtean aurrekonturako denbora gehiago hartzea eskatu du. Kontu-hartzaileari galdetu dio inbertsioetarako aurrekontuan sartutakoaren inguruan (400.000 euro eta koska), zer gertatzen den inbertsioetan aurreikusitako gainerakoarekin; hau da, 900.000 euro eta koska, zehaztu gabeak.

Kontu-hartzaileak erantzun dio.

EH-BILDUK aurkeztutako zuzenketa osagarri bat dela adierazi du.

Eguren jaunari Oiangu baserriko bigarren solairurako proposatzen duen inbertsioaz galdegin dio. Zertarako?

#### Eguren jn.

Erantzun dio jatetxea eta proposatzen den inbertsioa bi gai desberdin direla. Bere iritziz, Oianguk aukerak ditu, eta eraikina mantentzeko, ezinbestekotzat jotzen du baserria birgaitzen inbertitzea.

#### Sukia and.

Esan dio badirela bestelako lehentasunak; esate baterako, energia-eragimena aztertuta, horiek gauzatzeko hartu beharreko neurriak hartzea.

#### Dubreuil jn.

Esan du aurrekontuei aldeko botoa emango diela aurrekontu-egonkortasuneko, jasangarritasuneko eta defizit publikoko eskakizunak eta jarraibideak betetzen dituelako.

Bere iritziz, aurrekontu parte-hartzaileak dira, partaidetza-foroetan atera diren ideia eta proposamen ugari jaso dituelako.

Gainera, aurrekontu berritzaileak dira, hainbat jarduera-esparruetan proposamen berritzaileak jasotzen dituelako:

1.- Berdintasuna: barne-politika bat ahalbidetzen da udalean, aurrekontuetan jasota, udal-arlo guztiei eragiten diena, ahalegina benetan zeharkakoa izan dadin.

2.- Enpleguaren sustapena: langabetuak aldi baterako kontratatu; udaleko lan-poltsa berri; ekintzaileei babesa eman, ZABALIK programarekin; prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonen bideratutako lanerako prestakuntza; eta lanekoak ez diren praktiken programa bat, beren ikasketak osatzeko edo bukatzeko, praktikak burutu beharra duten ordiziarrentzat.

3.- EKIMENA proiektua; enplegu eta ekintzailera solidarioko faktoria, eta lanbide-heziketako proiektu bat, GOIERRI ESKOLAren eskutik.

4.- Berrikuntza gizarte-zerbitzuen arloan, zahartze aktiboaren arloko "BIZI POZ" programarekin. Horrez gain, gizarte-zerbitzuen udal-plan estrategikoa landu.

5.- Proiektuak droga-mendekotasunaren arloan; gurasoei bideratutako proiektuak martxan jarrita, egoera horiei nola aurre egin jakin dezaten.

Aurrekontuaren alde bozkatuko dugu, aurten legealdi honetarako EAJK eta PSOEk adostu ditugun akordioei ahal den neurrian egokitzen zaiolako, eta gure hauteskunde-programan genituen ekintzak eta proiektuak jasotzen dituelako; besteak beste, ekintzailera solidarioko proiektua, osasunaren eta droga-mendekotasunaren prebentzioaren arloko ekintzak, nahiz zakurren aisialdirako eremuak.

Laburbilduz, aldeko bozka emango du, aurrekontu-egonkortasunerako arauekin bat datorrelako, eta aurrekontu parte-hartzailea eta berritzailea delako.

Halaber, ahalegina eskertu dio Iturriotz jaunari.

Sukia and.

Berrito dio aurkeztutako aurrekontua eta zuzenketa ez direla antagonikoak, osagarriak baizik.

#### EMENDAKINAREN bozketa

Aldeko botoak: 7 (EH-Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2)

Kontrako botoak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Abstentzioa: 0

Beraz, Aurrekontua Alkatetzara itzuliko da Aurrekontu Proiektu berria adosten saiatzeko.



#### 5.- 2016ko Plantilla Organikoa

Mahai gainean geratu da Aurrekontua onartzen den arte.



## 6.- 2016 urterako Lanpostuen Zerrenda.

Mahai gainean geratu da Aurrekontua onartzen den arte.



## 7.-2015eko Aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.

Alkateak Berezko Aurrekontuaren likidazioa, "San Jose" Erakunde Autonomoaren Aurrekontuaren likidazioa eta "Herri Antzokia" Erakunde Autonomoaren Aurrekontuaren likidazioa onartu ondoren, Gipuzkoako Toki erakundeetako aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 49.3 artikulua betetzeko, likidazio hauen berri ematen da Osoko Bilkuran:

	Aurrekontuen emaitza	Diruzaintzako aurrezki garbia
Berezko Aurrekontua	894.741,95	1.420.829,39
"San Jose" Erakunde Aut.	-13.582,84	38.162,99
"Herri Antzokia" Erak.Aut.	15.306,93	56.944,18

## Kontuhartzaile jn.

Aurreko ekitaldiko likidazioaren alderdi garrantzitsuenak azaldu ditu.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



## 8- 2016ko 1go. Hiruhilabetean Kontuhartzaileak egindako ingeren berri ematea Osoko Bilkurari.

Martxoaren 5eko 2/2004 Errege Lege Dekretu bidez onartu zen Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratuaren 218 artikulua aldatzen duen Toki Administrazioako arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen bigarren artikulua (hiru) aplikatuz, osoko bilkuran aurkezten dut Udalbatzako Lehendakariak hartutako erabakiei edo Kontuhartzailearen alde aurreko txosten-eskaerarik gabeko gastuei egindako ingera guztien txostena.

Toki Administrazioako arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen bigarren.lau artikulua aldatutako martxoaren 5eko 2/2004 Errege Lege Dekretu bidez onartu zen Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratuaren Zortzigarren xedapen gehigarria (Euskal Foru Araudia) aplikatuz, txosten honen kopia bidaliko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Kontu Publikoen Euskal Epaitegiari.

Alkate jn.

GOIERRI FUNDAZIOAri egindako diru-laguntzaren edo ekarpenaren inguruko ingerari buruz esan du inplikaturako udalerrien artean hitz egin eta bilera egitea egokitzen dela.

Kontuhartzaile jn.

Kontuhartzaile jaunak Alkateari esan dio Goierriko Herrien Ekintzak sobera kobratu duena itzuli behar duela.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



9.- Eskaerak eta galderak.

Ez dago.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak hori egiaztatzen dut.